

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 18. atala

DATA: 2024/10/25

GUREAN

ARANTZAZU, ARRIKRUTZ.. BAGOAZI!

Urtero bezala, DBHko 4. mailako ikasleak Oñatira joan dira bisitan aste honetan. Arantzazuko santutegiak eta Arrikruzeko kobek euskal kultura eta artea ezagutzeko aukera paregabea eskaini digute. Arrikruz koba berezia da bertako aurkikuntza paleontologikoengatik. Hango errinozero iletua, leize-hiena eta orein erraldioen aztarnekin izugarri disfrutatu dute ikasleek. Horretaz gain, Arantzazun artea eta euskarari buruz hitz egiteko aitzakia ederra bilatu dute. Beste behin ere, gure Euskal Herriko altxorrek egun zoragarria oparitu digute.

GURE INGURUAN



TOUR IRUN ROMA

NON: MUSEO OIASSO/IRUN
NOIZ: URRIAK 27, 12:30EAN



Bisita gidatu interaktiboa, TIR aplikazioarekin, Irungo kaleetan barrena, Oiassoko aurkikuntza arkeologikoak ezagutzeko. Ibilbide honetan Xantalen ermitara sartuko gara, antzinako nekropoli erromatarrera. Igandero 12:30ean euskaraz.

Prezioa: 5,75€ helduak, 4,00€ 5 urte baino gehiagoko haurrak.

ITSASARGIEN IBILBIDEA

NON: PASAIA
NOIZ: URRIAK 26, 12:00ETAN

Euskal Kostaldeko paisaia liluragarrienarekin goza ezazu adin guztietara egokitutako itsaslabarretik bertatik doan eskaieratik gorako ibilbidean zoazela. Hurbileko ibilaldi harrigarria non tokiko istorioek portuko funtzionamendura hurbilduko zaituzteten Pasaia txoko paregabe honek guztiz txunditzeko. MATER Ontzi Museo Ekoaktiboak antolatutako aktibitatea da.

Tarifa arrunta: 8€
Plaza mugatuak. Aldez aurreko izen-ematea, helduak eta haurrak.
Tarifa murriztua (<12): 6€

Telefonoa
619814225
E-posta
info@mater.eus